

JESUKRISTO

Kristau Fedearen Sustraiak II

AITA LUIS VILLASANTE

(Gernika, 1920)

Frantziskotarra, erlijio liburu askoren egilea, euskara batuaren bultzatzaileetakoa, euskaltzaiburu izandakoa eta euskal filologia eta literatur alorreko hainbat lan garrantzitsu egin dituena. Bere itzulpen lan handi bategatik izango da ezaguna beti euskararen munduko itzulpenaren esparruan: izan ere, berari zor diogu Axularren *Gero* liburuaren edizio berria, alboan berak eginiko gaztelaniazko itzulpena zuela, 1976. urtean argitaratua.

JESUCRISTO

Los Fundamentos de la fe cristiana - II ¹

PADRE LUIS VILLASANTE, O. F. M.

Capítulo Octavo

EL MEDIO AMBIENTE DEL TIEMPO Y DEL PAÍS DE JESÚS

El año de nacimiento de Jesucristo

Hoy en día, y desde hace mucho tiempo (desde que Dionisio el Exiguo en el siglo V ideó la actual manera de contar los años), éstos se cuentan partiendo del año en que nació Cristo. Esta costumbre se ha extendido en todo el mundo, incluso entre los no cristianos. Pero, por lo visto, Dionisio el Exiguo no sacó bien las cuentas, y por ello andamos algo retrasados. En efecto, Jesús nació —según parece—, en el año 746 de la fundación de Roma, o sea, en el año 746 «ab Urbe condita». El año que Dionisio el Exiguo pone como primero no es precisamente el año en que nació Jesús, aunque él así lo creía. Para entonces Jesús tenía ya 8 años de edad. Según esto, en nuestra cuenta se da este pequeño retraso.

De todas formas, esto no importa gran cosa para nuestra cuenta. El mundo ha tomado la venida de Jesús como mojón para medir los tiempos y las edades, ¡esto sí que tiene un sentido profundo! Esta costumbre no es una pura moda, una mera rutina. El medir los años de esta forma no es un puro juego del entendimiento humano. Efectivamente, Cristo ha traído al mundo algo nuevo, algo que no muere. Ha infundido en la humanidad y en la historia una alma nueva. Por ello con Cristo se produce una ruptura en la historia. Las civilizaciones y épocas anteriores a Cristo, aun siendo famosas y célebres bajo muchos aspectos, están totalmente muertas. Acer-

¹ Editado por: Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S.A., San Sebastián, 1968

JESUKRISTO

Kristau Fedearen Sustraiak - II ¹

AITA LUIS VILLASANTE, P. F. M.

Zortzigarren kapitulua
JESUSEN GARAICO ETA ERRIKO GIROA

Jesukristoren jaiot-urtea

Gaur eguneon, eta aspaldi samarretik (Dionisio Txikarrak V gn. gizaldian kontraera modu au asmatu zuenetik), urteak Kristoren jaiotzatik asita kontatzen dira. Mundu guztian zabaldua dago oitura au, baita kristau ez direnen artean ere. Diotenez, ordea, Dionisio Txikarra delako orrek ez zituen kontuak ongi atera eta pixka bat atzeraturik gabilta gure kontatze-moldean. Jesus, alegia, Erromako iria sortu eta 746garren urtean jaio zan (itxuren arabera), ots, 746 urtean «ab Urbe condita». Dionisio Txikarrak, berriz, bere kontraeran lehenbiziko urtetzat jotzen duen urtea ez da presiski Jesusen jaiot-urtea. Ordurako Jesusek ba zuen zortzi urteko adiña. Beraz, atzerapen txiki orrekin gatoz urteen kontraeran².

Nolanahi ere, orrek ez du guretzat ajola aundirik. Jesusen etorrera artu du munduak mugarri antzo denborak eta aroak neurtzeko, eta onek bai duela esanai sakona! Oitura au ez da ez moda bat, usuario xoil bat. Ez da giza adimenaren joku utsa urteak era ortara kontatzea. Izan ere, Kristok zerbait berri eta illezkor ekarri du mundura. Gizadian eta kondairan barna

¹ Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S.A.-k argitaratua. Donostia (1968). Hitzaurrearen ondoren honako ohar hau dakar: «Euskaltzaindiak «h» letrari buruzko erabakia eman zuenerako, liburu honen konposizioa egina zegoen inprentan. Arrazoi horrengatik Baionako biltzarrak 1964gn. urtean lehenengo epe baterako agindu zituen haxeak bakarrik daude bertan; ikus 14. orrialdea.

² Ikus T. Corbinshley, «Cronología del nuevo Testamento», *Verbum Dei* deritzaion liburuan, vol. III, nº 676.

ca de ellas sí que se puede decir: ¡Lo pasado, pasado! Perecieron para siempre. No es posible el retorno a ellas. Cristo ha infundido una alma nueva en la historia humana, y desde entonces las edades y las civilizaciones muestran un rostro totalmente distinto. Hay una fuerza interna, una levadura, que mantiene a la humanidad y a la civilización siempre inquieta, siempre empeñada en ascender².

El Imperio Romano y Palestina

Volvamos los ojos, por un momento, a aquellos siglos lejanos, con el propósito de conocer, en la medida que es posible, el estado de las cosas de entonces, el ambiente social etc.

En Roma Augusto era Emperador. Y cualquiera sabe que en aquel tiempo Roma era la ciudad mayor y cabeza de todo el mundo. El Emperador de Roma tenía bajo su poder a todo el mundo: *totus orbis*, como decían entonces. Ciertamente, no era todo el mundo, pero sí todo lo que en este hemisferio se conoce, o casi todo. En aquellas fechas no era posible conocer el interior de Asia y Africa; incluso ciertos rincones de Europa eran poco conocidos. Y mucho menos conocidas eran las Américas y Oceanía: de estas no se sabía ni que existían. Por tanto, el famoso «*totus*» *orbis* se reducía a las costas próximas del mar Mediterráneo. El sur de Europa, el norte de Africa y el oeste de Asia: a esto se reducía todo. De todos modos, el país de Jesús estaba incluido.

La situación de Palestina en aquella época nos es, pues, conocida. Cuando nació Jesús reinaba allí Herodes el Grande. Reinó sobre toda Palestina. A decir verdad, debía el trono al Emperador Augusto. Adulando al dueño de Roma y pagando grandes sumas de algún modo mantenía su corona. En Sebaste levantó un templo en honor de Augusto, y mientras tanto renovó y embelleció grandemente el templo de Jerusalén para atraer a los judíos.

Para cuando se inició la vida pública de Jesús, Augusto había muerto en Roma, y Tiberio le sucedió en el trono. En Palestina, en cambio, la unidad conseguida por Herodes se rompió pronto. En Galilea otro Herodes (hijo del anterior) mandaba en calidad de tetrarca. Esta palabra «tetrarca» indica a las claras que sólo tenía mando en la cuarta parte de Palestina. Felipe (hijo de este Herodes) era a su vez tetrarca en Iturea y Traconítide —en Transjordania—. Y en Abilina mandaba, también como tetrarca, Lisania. En Judea, en cambio, Arquelao había estado como cuarto tetrarca, pero a éste los romanos le quitaron el mando, y entonces Judea entró en

² Véase Jean Guitton, *Le problème de Jésus*. Chap. I, «Ausencia y presencia de Jesús en la historia»; París, 1950, p. 21

arma berri bat ixuri du. Orregatik, eten bat gertatu da kondairan Kristorekin. Kristo etorri aurreko zibilizazioak eta aroak, naiz ta ospetsu eta miragarriak izan alderdi askotatik, zero daude illak. Aiekgatik bai esan ditekeela: Joanak joan! Betiko joanak dira, eta ez dago aietara biurtzerik. Kristok arima berri bat arrarazi dio giza-kondairari, eta arrezkero aroek eta zibilizazioek ba dute begitarte bat arras bestelakoa. Ba da barne-indar bat, legami bat, gizadia eta zibilizazioa beti urduri, beti gora-naiean darabilana³.

Erromatar inperioa eta Palestina

Itzul ditzagun begiak, ixtant batez, mende urrun aietara, orduko gauzen egoera, gizarte-giroa ta abar, ahal den neurrian, ezagutzeko asmoz.

Erroman Augusto zen Enperadore. Eta edozeiñek daki garai artan Erroma zela mundu guztiko iri nagusi eta burua. Bere mende zuen Erromako Enperadoreak mundu guztia: *totus orbis*, orduan zioten bezala. Ez zan, jakiña, mundu guztia, ezta munduko parterik geiena ere, baiña bai alde ontan ezagutzen zen dena edo ia dena. Asia eta Afrikako lur-barruan zer zegoen ez zan orduan jakiterik; Europako bazter batzuk ere gutxi ezagunak ziran. Are gutxiago oraindik Amerikak eta Ozeania: oiek ziren ere ezin antzik eman. Beraz, *totus orbis* famatua Mediterraneo itxasoaren inguruko ezpainek osatzen zuten. Europako ego aldea, Afrikako iparraldea eta Asiako sartaldea: hori zan guztia. Edozein modutan ere, Jesusen sorterrria barruan sartzen zan.

Garai artan Palestinako lurraldea nola aurkitzen zen ba dakigu. Jesus jaio zenean Herodes Andia zan ango errege. Onek Palestina osoa zuen bere mende. Egia esateko, Augusto Enperadoreari zor zion errege-aulkia. Erromako jabeari zurikeriak egiñez eta pagakizun gogorak ordainduaz, nolabait zaitzen zuen bere koroia. Sebasten tenplo bat eraiki zuen Augustoren omenez, eta binbitartean Jerusalengoa berritu eta andikiro dotoretu zuen, judutarrak bereganatu nairik.

Jesusen bizitza agerikoa asi zeneko, Erroman Augusto illa zan, eta aren lekuan Tiberio zegoen agintzen. Palestinan, berriz, Herodesek egindako batasuna bereala puskatu zan. Galilean beste Herodes bat (lengoaren semea) zegoen tetrarka bezala. Tetrarka itz onek garbi adierazten du Palestinako laurdena bakarrik zeukala bere eskumenean. Felipe (Herodes honen anaia), Iturea eta Trakonitiden —Transjordaniako aldean— zen tetrarka. Eta Abilinan Lisania, tetrarka bezala au ere. Judean, berriz, Arkelao egona zan laugarren tetrarka bezala, baiña oni erromatarrek agintea kendu egin

³ Ikus Jean Guitton, *Le problème de Jésus*. Chap. I, «Ausencia y presencia de Jesús en la historia»; París, 1950, p. 21

camino de hacerse enteramente romana, como si fuera una provincia del Imperio. Mejor dicho, como parte de la provincia de Siria. Precisamente, Poncio Pilato era el sustituto del gobernador de Siria para Judea. Este gobernador romano tenía su residencia habitual en la ciudad de Cesarea, pero en el tiempo de la Pascua subía a Jerusalén. Así pues, toda Palestina se encontraba en trance de perder su soberanía y de convertirse en un pequeño trozo del Imperio Romano.

Qué es lo que significaba hacerse romano, nosotros a duras penas podemos comprender. Como ya dijimos más arriba, a lo largo de todo el Imperio reinaba un modo de vida, una cultura, un idioma y unas mismas costumbres que llegaban a todas partes. No había fuerza que pudiera detener esa inundación. Países famosos como Egipto y Mesopotamia, que en otro tiempo habían sido portadores de una gran civilización, se helenizaron totalmente, o sea, abrazaron las costumbres, idioma y modos de vida de los romanos y griegos. Palestina, que era mucho más pequeña y despreciable, cualquiera podía pensar que sería fácilmente asimilable; pero no fue así. Aquel pequeño país poseía un tesoro muy peculiar, que esos otros no tenían, a saber, su religión, la fe en un sólo Dios y la creencia de que tenía especiales lazos con ese Dios. Poseía su Biblia. Y también un cierto orgullo, o sea, la conciencia viva de ser superior a todos los otros pueblos. Llevaba prendida en el corazón la esperanza de un gran futuro, aunque no sabía bien cómo se realizaría ese futuro. De todas formas, Israel era el pueblo elegido de Yahveh. Entre Yahveh e Israel había una alianza sagrada. Si Israel jugaba limpio con su Señor, Dios, por su parte, se comprometía a cumplir sus promesas. Israel vivía, pues, de cara al futuro. A la espera del reino que iba a traer el Mesías.

La religión y la Biblia ayudaron mucho a que Israel conservara su personalidad como pueblo. Los que se empeñaron en privar a este pueblo de su alma, pronto lo advirtieron. Dos o tres siglos antes que naciera Jesús, los reyes de Siria se propusieron someter Palestina. Y Antíoco Epífanes se dedicó a ello con todas sus fuerzas: había que arrancar de los corazones israelitas aquella religión especial y los israelitas debían hacerse gentiles como todos los demás pueblos del mundo. Antíoco ideó la primera persecución religiosa que ha conocido el mundo. 167 años antes que naciera Jesús, la imagen de Zeus fue colocada en el templo de Jerusalén. Pero Antíoco sacó mal las cuentas. El pueblo, como un solo hombre, se levantó en armas y con los Macabeos como jefes, llevó adelante la guerra, hasta alcanzar la independencia.

Después los romanos jugaron con más suavidad y más mano zurda. Respetaban la religión y las costumbres propias de Israel; pero, claro, subsistía el mismo problema de antes. Se trataba de un pueblo que no era como los otros, era indómito, orgulloso, que despreciaba a los gentiles y

zioten, eta orduan Judea zuzen zuzenean eta oso osoan erromatar biurtze-ko bidean sartu zan, Inperioko probintzia bat balitz bezala. Obeki esateko Siriako probintziaren zati bat bezala. Ain zuzen ere, Pontzio Pilato zan Siriako gobernariaren ordezkoa Judearako. Erromako agintari onek Zesareako iria zeukan egotezko bizilekutzat, baiña Pazko garaian Jerusalemenera igotzen zan. Palestina guztia zegoen, ba, beregaintasuna galdu bearrean eta Erromatar Inperioko puxka uts bat biurtzeko bidean.

Erromatar biurtze ori zer zen guk nekez asma dezakegu. Gorago esan genuen bezala, Inperio guztian zear ba ziran bizi-molde bat, kultura bat, izkuntza bat eta oitura jakin batzuk, nunai eta noranai eltzen zirenak. Ez zan iñun ugolde hura geldi arazitzeko indarrik. Ejipto eta Mesopotamia bezalako lurralde famatuak, beiñola zibilizazio aundi baten jabe izandakoak, arras helenizatu ziran; erromatarren eta griegoen oitura, izkuntza eta bizi-moldeak onartu zituzten. Palestina, askoz txikiagoa eta ezteusagoa izanik, fite eta lan aundi gabe irentsia izango zela usteko zuen edozeiñek, baiña ez zen ala gertatu. Ba zuen erri txiki onek ondasun berezi bat, beste oiek ez zutena: bere erlijioa, Jainko bakarraren siñestea eta jainko orrekin lokarri bereziak zituelako fedea. Ba zuen bere Biblia. Eta bai arrotasun bat ere: beste erri denen goitik zegoelako konzientzia bizia, alegia. Etorkizun aundi baten itxaropena zeraman biotzean kokatua, naiz ta etorkizun hori nola edo zer moduz egia biurtuko zen, garbi ez jakin. Nolanai ere, Israel zan Yahveh-ren erri autatua. Yahveh eta Israelen artean ba zan alkartasun sakratu bat. Israelek bere Jaunarekin leial jokutzen baldin bazuen, Jainkoa bere aldetik, bere promesak gordetzera beartzen zan. Etorkizunari buruz abiatu bizi zan, ba, Israel, Mesiak ekarriko zuen erresumaren esperoan.

Erljioak eta Bibliak asko lagundu zion Israeli bere nortasuna zaitzeko, erri bezala zeukan nortasuna gordetzeko, alegia. Erri au arimaz gabetzen saiatu zirenak aurki jabetu ziren ortaz. Jesus jaio baiño bi edo iru gizaldi lehenago Siriako erregeak Palestina menderatu nai izan zuten. Eta Antioko Epifanes gogotik lotu zan bere lanari: erlijio berezi hura kendu bear zan israeldarren biotzetatik, israeldarrak jentil biurtu bear ziren munduko beste erri guztien antzera. Kondairak ezagutu duen aurreneko persekuzioa erlijioagatik, ark asmatu zuen. Jesus jaio baiño 167 urte lehenago Jerusalemgo Tenploan Zeus-en irudia jarria izan zan. Baiña kontuak gaizki atera zituen Antiokok. Erria gizon bat bailitzen, armetan jaiki, eta makabeotarrak buruzagi zirela, gerra aurrera eraman zuen, askatasuna lortu arte.

Orain erromatarrek leunago eta ezker esku geiagorekin jokutzen zuten. Israelgo erlijioa eta oitura bereziak errespetatzen ziran, baiña ba zan lengo problema berbera. Erri hura ez zan besteak bezalakoa, ezikaitza zan, arroa zan, jentillak eta jentillen aurrerapen, jakinduri eta indar guztiak

todos los adelantos, sabiduría y todos los valores de éstos. Vivía con la persuasión y coherencia de que él poseía algo que era más grande. Pero, por otro lado, ¡era tan poca cosa, tan pequeño y tan insignificante! Los romanos se salían de sus casillas, cada vez que observaban este comportamiento. Un hijo de Israel, aun el más pobre y pequeño, valía, a su juicio, mil veces más que todos los gentiles; y esta conciencia provenía de su fe y religión.

Este pueblo judío —y particularmente Judea— en el tiempo de Jesús se hallaba bajo el dominio de los romanos, pero, eso sí, manteniendo fielmente su religión, usos etc. El pueblo toleraba de mala gana esa servidumbre. Que el pueblo escogido de Dios estuviera bajo el yugo de unos gentiles sin fe, ¡qué vergüenza! La esperanza de un Mesías o Caudillo, estaba muy viva en los corazones de los israelitas; pero cuando un pueblo ha perdido la independencia, empieza a soñar, y la mayor parte de los judíos tampoco querían el Mesías para otra cosa que para sacudir el yugo de los romanos. A su juicio, ésta sería la tarea o quehacer del Mesías: emanciparles del yugo romano.

Partidos, Saduceos, Fariseos, etc.

Toda la variedad de tendencias o partidos que suelen surgir en estas épocas críticas existían también en la época de Jesús. Y en primer lugar, los que hoy llamaríamos colaboracionistas. Estos son los que en el Evangelio aparecen bajo el nombre de «Herodianos». En efecto, ¿qué era Herodes? Un servidor de Roma, un lacayo fiel. También los Saduceos querían estar bien con Roma. De este partido solían ser los grandes, los ricos, los sumos sacerdotes, los que tenían cargos: todos estos no querían jaleos: para conservar su rango, lo mejor era evitar el confrontamiento con los romanos, llegar a un acuerdo. En el Evangelio aparecen también los *publicanos* o cobradores de los impuestos. Estos eran los que cobraban los tributos. Eran odiados y mal vistos, porque trabajaban para los romanos. En los Evangelios vemos cómo Jesús acogía a estos pobres cobradores del tributo, y cómo de entre estos tomó a un apóstol, a Mateo, el autor del primer Evangelio. Según parece, Mateo fue algo más que mero cobrador del tributo: jefe de publicanos, administrador, cajero, responsable, y por supuesto, persona que sabía algo.

Enfrentados a estos colaboracionistas estaban los que hoy llamaríamos «la resistencia». El pueblo bajo, toda o la mayor parte, pertenecía a este partido. Y, por supuesto, los jefes de ellos, a saber, los Fariseos. En el Evangelio los Fariseos son los que más frecuentemente se oponen a Jesús.

Pero dentro de este gran grupo que formaba la resistencia, había grados. La mayor parte, al menos en tiempo de Jesús, no eran «violentos», hacían un modo de resistencia no violenta. Flavio Josefo —en el libro *De*

mezprezatzten zituen. Zerbait aundiagorik ba zeukalako ustean bizi zan bera. Eta beste aldetik, ain utsa, txatxarra eta ezteusa izan! Erromatarrek beren onetik ateratzen ziran, portaera au nabaitzen zuten bakoitzean. Israelgo semerik xehe, xume, pobreena, milla aldiz geiago balio zuen, bere ustez, jentil guztiak baiño; eta kontzientzia au bere fedetik, bere erlijiotik zetorkion.

Judutar erria, bada, —eta bereziki Judea— Jesusen garaian erromatarren menpean aurkitzen zan, bere erlijio, oitura eta abar zintzo gordeaz, alere. Erriak gogo txarrez jasaiten zuen menpetasun hori. Jainkoaren erri autatua fede gabeko jentil batzuen menpean egotea, hura lotsa! Mesias edo Buruzagi baten esperantza, bizi-bizia zegoen israeldarren biotzetan; baina erri batek askatasuna galdu duenean, ametsetan asten da, eta judurik geienek ere Mesias hori ez zuten bestetarako nai, erromatarren uztarri hori asintzeko baizik. Auxe izango zan, aien ustez, Mesias orren zeregiña: erria erromatarren agintepetik ateratzea.

Alderdiak: Saduzeo, Fariseo eta abar

Olako une larrietan erne oi diren joera edo partidu mueta guztiak ziran Jesusen denboran ere. Eta aurrena, gaur kolaborazionistak deituko genituzkenak. Oiek dira Ebanjelioan «herodiano» izenarekin datoztenak. Izan ere, zer zan Herodes? Erromaren ogipeko bat, zerbitzari esaneko bat. Saduzeoak ere Erromarekin ondo egotea nai zuten. Oietakoak izaten ziran andikiak, dirudunak, apaiz nagusiak, kargudunak: oiek ez zuten istilurik nai: beren mailla zaitzeko, onen onena zan erromatarrekin burrukarik ez eukitzea, konponketa bat egitea. Publikanu edo zerga-biltzailleak ere azaltzen dira Ebanjelioan. Auek zerga edo pagakizunak kobratzen zituzten. Gorrotatuak eta gaizki ikusiak izaten ziran, erromatarrentzat lan egiten zutelako. Ebanjelioetan ikusten dugu nola Jesusek zerga-biltzaille kaxkar oiek beregana deitzen zituen, eta nola oietatik artu zuen apostolu bat, Mateo, aurreneko ebanjelioaren idazlea. Dirudianez, zerga-biltzaille arrunta baiño geixego zan Mateo: oien buru, kontu-artzaille edo arduraduna, eta zerbait ikasia ere bai, noski.

Kolaborazionista oien begiz begi eta aurka zeuden gaur «resistentzia» izenarekin bataiatuko genituzkenak. Erri xea, guztia edo geiena, alderdi ontan sartzen zan. Eta erri orren gidariak, noski: Fariseuak. Ebanjelioan, Fariseuak dira maizenik Jesusekin burrukan ari direnak.

Baiña resistentziako sail aundi onen barnean, ba ziran maillak. Geienak, Jesusen denboran beintzat, ez ziran indarraz baliatzen. Violentzia edo bortxa gabeko resistentzia modu bat egiten zuten, alegia. Flavio Josefok (*De*

bello iudaico, II, 9— cuenta un suceso peregrino. Merece contarlo, para conocer la conducta de aquella gente de entonces. Pilato, al ser nombrado gobernador de Judea, de noche y sin que nadie lo viera, hizo traer a Jerusalén las imágenes y banderas del César. Al día siguiente, cuando la gente vio dichas imágenes, comenzaron los gritos: pedían que se quitaran de allí. Pero no consiguieron nada. Entonces una turba imponente se fue a Cesarea para pedir eso mismo a Pilato en persona. Un «no» redondo fue la respuesta de Pilato. Entonces se tumbaron en el suelo y así permanecieron durante cinco días y cinco noches. Al fin Pilato fue a su tribunal, y llamó allí a todos, como si fuera a dar una respuesta. Cuando se hallaban todos en la plaza, por orden de él vinieron los soldados y se colocaron en derredor, teniendo a los judíos en medio. Pilato hizo saber a los judíos que allí mismo serian despedazados, si no aceptaban aquellas imágenes del Cesar, y mandó a los soldados que tuvieran preparadas las espadas. Al oír eso, aquellos judíos se pusieron todos de rodillas y ofrecían sus cuellos, y decían a gritos que preferían la muerte, antes que permitir o dejar que se violaran sus leyes. Pilato no se esperaba esto. Se extrañó, y mandó en seguida que se quitaran de Jesuralén aquellas imágenes. Con gente de tal naturaleza no había otra salida que dar marcha atrás, y los romanos, al menos la mayoría de las veces, respetaban bastante bien la religión, las creencias y costumbres del pueblo judío.

Pero no todos eran tan pacíficos. Había quienes no se contentaban con esa resistencia no-violenta. Esos son los que hoy llamaríamos «terroristas» o algo parecido, los que por medio de las armas y de la guerra santa querían zanjar los pleitos. Estos patriotas rabiosos, cuando veían a un romano, al menos si podían, iban por detrás y a traición le clavaban el cuchillo. Los tales eran conocidos con el nombre de «celotes». En tiempo de Jesús ya había de estos, y después de morir Jesús se multiplicaron más, y por fin, llevaron a todo el pueblo a la guerra y a la ruina. Cuando Jesús era joven, apareció ese partido de los «celotes»; con frecuencia sucedían asesinatos, incendios, motines, etc. provocados por ellos. Entre los Apóstoles vemos uno que había sido «colaboracionista»: Mateo; pero tampoco faltan quienes habían sido «Celotes»: el apóstol Simón que lleva el sobrenombre de «celote» (se le llama también «Cananeo», que quiere decir lo mismo, pues «kanah» en hebreo es «celo», «karra»).

El mismo Judas, el que vendió a Jesús, se sospecha que pudo ser de estos zelotes. En el Evangelio se le da el sobrenombre de «Iscariote». Y más de un erudito opina que este nombre no es más que una variante de la voz «sicario». Y precisamente, entre esos celotes, a los más radicales y furibundos se les llamaba «sicarios». Si esto es así, aparece a otra luz la venta del Señor que hizo Judas; parece, en efecto, que entre las razones para vender a Jesús entraba también la política. Judas pensaría que Jesús iba a librar al

bello iudaico liburuan, II, 9) ba dakar gertaera bitxi bat. Kontatzea merezi du, orduko jendearen jokabidea ikusteko. Pilato, Judeako gobernari jarri zenean, gauaz eta iñork ikusi gabe, Jerusalemara ekarrarazi zituen Zesar-en irudi eta banderak. Juduen legean irudi mueta guztiak debekaturik zeuden. Biaramonean, jendeak irudiok ikusi zituenean, asi ziran oiuka: oiek andik kentzeko eskatzen zuten. Baiña ez zuten ezer lortu. Orduan jende mordo ikaragarria Zesareara joan zan, Pilatori berari gauza bera eskatzeko. Ezezko gorria eman zien Pilatok. Orduan lurrean etzan, eta alaxe egon omen ziran bost egun eta bost gautan. Azkenean Pilato joan zan bere auzitegira, eta denai ara ots egin zien, erantzun bat ematera balijoa bezala. Denak plazan zeudelarik, soldaduak aren aginduz etorri eta inguru guztian jarri ziran, judutarrak erdian artuta. Pilatok judu jendeari jakiñarazi zion bertan izango zirela zatituak, baldin Zesar-en irudi aiek onartzen ezpazituzten, eta soldaduei agindu zien beren ezpatak prest eukitzeko. Hori aditzean, judu aiek denak belauniko jarri eta beren lepoak eskeintzen zituzten, eta deadarka zioten naiago zutela il, beren legeak austen utzi baiño. Pilatok ez zuen olakorik espero. Arritu egin zen, eta bereala agindu zuen irudi aiek Jerusalemetik kentzeko. Alako jende moduarekin ez zegoen gibelat biurtu beste biderik, eta erromatarrek, geienetan beintzat, naiko ongi errespetatzen zuten judu erriko erlijioa, siñiskera eta oiturak.

Denak, ordea, ez ziran aiñ paketsu eta otxanak. Ba ziran, alegia, bor-txa gabeko resistantzia-gisa orrekin asetzen ez zirenak. Oiek dira gaur «terroristak»-edo deituko genituzkenak, arma-bidez eta gerra sailduaren bidez auziak garbitu nai zituztenak. Abertzale amorratu oiek, erromatar bat ikusten zutenean, ahal bazuten behintzat, atzetik joan eta saldukeriaz aiztoa sartuko zioten. Ba zuten beren izen berariazkoa: «zelotak». Jesusen denboran ba ziran orrelakoak ere, eta Jesus il ezkerro, ugariagotu egin ziran, eta azkenik, erri guztiak gerrara eta ondamendira lerra arazi zuten. Jesusen gazte denboran, agertu zan zeloten alderdi edo partidu hori: eriotzeak, suak, matxinadak eta abar maiz gertatzen ziran oiek zirela medio. Apostoluen artean ikusi dugu bat «kolaborazionista» izandakoa: Mateo; baiña zelota izandakoak ere ez dira falta: Simon apostoluak zelota goitizena darama (*kana-neo* ere deitzen zaio, baiña itz orrek gauza bera esan nai du, “*kanab*” hebreoz “*zelo*” “*karra*” baita).

Judas berbera, Jesusen saltzaillea, ba da susmoa *zelota* oietakoa ote zen. «Iskariote» goitizena ematen zaio ebanjelioan. Eta jakintsu batek baiño geiagok uste du izen au «*sicarius*» itzaren aldaketa bat baizik ez dela. Eta aiñ zuzen, «zelota» oien artean bortitzen eta amorratuen zirenei «sikario» izen hori ematen zitzaaien. Hori ala bada, beste argi batean ikusten da Judasen saldukeria; badirudi, alegia, Jesus saltzeko arrazoietan politika ere sartzan dela. Judasek usteko zuen Jesusek judu erria erromatarren agintepetik

pueblo judío del dominio romano; a decir verdad, también los otros apóstoles pensaban igual. Pero Judas cayó en una suerte de desesperación profunda cuando se dio cuenta de que los planes y caminos de Jesús eran muy otros, y entonces en venganza y por odio, decidió vender a su Maestro³.

Los Esenios y los manuscritos de Qumran

En medio de los unos y de los otros había también quienes no se metían en negocios políticos. De éstos eran los Esenios. En los Evangelios no se les nombra; Flavio Josefo, en cambio, sí los menciona, como también algunos Padres de la Iglesia. Y en nuestros días, los recientes hallazgos de los manuscritos de Qumran han arrojado gran luz acerca de ellos. Los Esenios, pues, vivían apartados de la sociedad, y en soledad, como en sus conventos. En torno al Mar Muerto hay un desierto y en él tenían su morada. Alejados del mundo y de la política, confiaban firmemente en que por obra de Dios alguna vez los Hijos de la Luz alzarían la cabeza y que los Hijos de las Tinieblas serían vencidos.

Mucho ruido han sacado en los últimos años algunos escritores acerca de este tema. Los Esenios se han puesto de moda. En ellos quisieran hallar la llave para explicar el nacimiento del Cristianismo. Efectivamente, los descubrimientos ocurridos en 1947 y en los años siguientes tienen una importancia decisiva: de esto no hay duda. Pero, como ocurre siempre en estas ocasiones, se han dicho demasiadas cosas y se ha soñado demasiado. Algunos han dicho que Cristo no fue más que un esenio, y que la imagen de Cristo que aparece en los Evangelios está tomada de los manuscritos de Qumran: que el «Maestro de Justicia» de dichos escritos ha sido el modelo y espejo de Cristo, etc. Pero aquí pasa una cosa: que algunos miran esos viejos papeles con las luces y colores tomados del Nuevo Testamento. Que algunos han querido ver o interpretar Qumran a la luz del Nuevo Testamento. A decir verdad, tiene poco que ver lo uno con lo otro. Y precisamente, para descubrir la nueva savia que ha traído la religión cristiana, no hay nada mejor que investigar esos documentos objetivamente y con atención. Desde luego, entre los primeros cristianos hubo, sin duda, algunos que habían sido esenios, y cierto sabor de ellos aparece más o menos en algunas iglesias de las primeras generaciones cristianas, sobre todo en Siria.

Se ha pensado también si Juan Bautista no se habría criado y desarrollado entre los Esenios. El Evangelio dice que creció y vivió en el desierto; y los esenios en el desierto tenían sus eremitorios y en ellos vivían como monjes o frailes. Es posible que fuera así. Jesús, como hemos visto, reclutó

³ Véase Alonso, «La muerte de Jesús en relación con la política», *Sal Terrae*, 1963, p. 193.

askatu bear zuela; egia esateko, beste apostoluek ere ba zuten amets hori. Baiña Judas etsipen gogorrean erori zan Jesusen asmoak ta bideak beste-lakoak zirela oartu zenean, eta orduan mendekuz eta gorrotoz, bere Maisua saltzea erabaki zuen⁴.

Esenioak eta Qumran-go esku-idatziak

Batzuen eta besteen erdian ba ziran politika arazoetan batere sartzen ez zirenak. Oietakoak bide ziran *Esenioak*. Ebanjelioetan oien aipamenik ez da egiten; Flavio Josefok, ordea, bai, aipatzen ditu, eta baita Elizako Guraso batzuek ere. Eta gure egunetan, Qumran-go esku idatzien aurkitu berriak argi aundia ixuri dute oien gain. Gizartetik alde eta bakartadean bizi ziran beren komentueta bezala. Itxaso illaren inguruan ba da basamortu bat, eta huraxe zan auen bizilekua. Bai mundutik eta bai politikatik ere aldenduak, konfiantza bizia zuten, alare, Jainkoaren eskuz noizbait Argiaren Semeek burua jasoko zutela eta Illunpearen Semeak azpiratuak izango zirela.

Zalaparta aundia atera dute azken urte auetan idazle batzuek. *Esenioak* modan jarri dira. Oietan billatu nai lukete Kristautasunaren asiera esplikatzeko giltza. Izan ere, 1947 eta urrengo urteetan gertatu diren aurkituek inportantzi larria dute: ortan ez dago dudarik. Baiña betiere olako okasioetan gertatu oi dena: geiegikeriak esan eta neurritz kanpoko ametsak egin izan dira. Batzuek esan dute Kristo *esenio* bat besterik ez dela, eta Ebanjelioetan ageri den Kristoren irudia Qumran-go esku-idatzietatik artua dela: idatzi oietako «Justiziaren Maisua» izan dela Kristoren eredu eta ispi-llu, ta abar. Baiña emen zera gertatu da: Testamentu Berritik artutako argi eta koloreekin ikusten dituztela batzuek paper zahar oiek. Qumran Testamentu Berriaren argitan ikusi ta intepretatu nai izan dutela batzuek. Egia esateko, zer ikusi txikia dute batak eta besteak. Eta ain zuzen, kristau erlijioak ekarri duen izerdi berria nabaritzeko, ez dago esku-idatzi oiek otz otzean eta arretaz aztertzea bezelakorik. Hori bai, lehenbiziko kristauen artean izan ziran, dudarik gabe, *esenio* izandako batzuk, eta oien kutsua ageri da gutxi asko lehen gizaldietako kristau elkargo batzuetan, Sirian batez ere.

Baita ere pentsatu izan da Joan Bataitzaillea ez ote zen oien artean azi eta koskortu. Ebanjelioak dio basamortuan azi eta bizi zela; eta esenioek basamortuan zituzten beren bakartegiak eta an bizi ziran monje edo praille gisa. Joan ebanjelista ere txikitan oien artean eskolatu ote zen susmatzen dute batzuek. Baliteke ala izatea. Jesusek, ikusi dugunez, beste partidu eta

⁴ Ikus Alonso, «La muerte de Jesús en relación con la política», *Sal Terrae*, 1963, 193 or.

hombres de toda clase de gente y partidos, y con mayor razón lo haría de estos fervorosos creyentes⁴.

El Templo, las sinagogas y los Escribas

Jerusalén era, en tiempo de Jesús, la única capital de Palestina; además los judíos no tenían ninguna otra gran ciudad. Este era el corazón de la nación, aquí estaba el Templo, o sea, la Iglesia; porque, hablando con precisión, las sinagogas de los pueblos no eran iglesias. Por lo tanto, solamente en esa iglesia única de Jerusalén se hacían los actos de culto, y se ofrecían sacrificios a Dios: novillos, ovejas etc. Todos los israelitas iban anualmente en peregrinación a Jerusalén.

En los demás pueblos no había iglesias, pero había sinagogas. Las sinagogas eran unas casas puestas a propósito para la oración; para la oración, y para la instrucción religiosa. En dichas sinagogas se reunían los judíos cada sábado. En ellas todos juntos cantaban los salmos, escuchaban la lectura de los libros del Antiguo Testamento, y de boca de los escribas escuchaban aclaraciones y comentarios sobre los mismos.

¿Y qué eran estos Escribas? Hombres sabios o iniciados en temas bíblicos y de la ley de Moisés. No eran sacerdotes. Los sacerdotes se ocupaban en los oficios del Templo. Los escribas, en cambio, eran laicos: meros ciudadanos que se ocupaban en sus trabajos y oficios para ganarse el pan, pero eso sí, eran muy adictos a la ley de Moisés, y debido a esa adhesión se tomaban el tiempo para estudiarla. De este modo, el pueblo recibía cada año cierta instrucción sobre la religión y sobre la ley de Moisés.

Oficios, cosechas, etc.

La mayoría de los israelitas eran labradores. El trigo y la cebada, si era buen año, se daban con relativa abundancia. Asimismo, los higos, la uva y algunas otras frutas. Entonces también existían bosques y selvas; posteriormente, todo esto se quitó y perdió. Asimismo existía el pastoreo; pero en tiempo de Jesús este oficio no era tan estimado y solicitado como antaño. También había pescadores en la costa de Galilea, y, precisamente de los tales tomó Jesús algunos de sus Apóstoles. Asimismo, había carpinteros; Jesús mismo había sido carpintero en Nazaret.

No es fácil saber cuántos habitantes tenía Palestina en tiempo de Jesús. Probablemente unos dos millones o algo así. Desde que Pompeyo (en el año 63 antes de Cristo) puso el pasto bajo dominio romano y en los cien años siguientes (hasta el año 66 después de Cristo) el pueblo se mantuvo

⁴ Véase Danielou, *Los escritos del Mar Muerto y los orígenes del Cristianismo*, Madrid, 1961.- J.R. Scheifler, «Así nacieron los Evangelios. «Cap. IV. Los Manuscritos de Qumran y los Evangelios». Bilbao, 1964, p. 225

giza-mueta guztietatik bereganatu zituen gizonak, eta Jainko-zale kartsu ziren autetatik areago egingo zuen, noski⁵.

Tenplua, Sinagogak eta Eskribak

Jerusalen zan, Jesusen garaian, Palestinako iri-buru bakarra; ez zeukaten gaiñera, juduek beste iri aundirik. Au zan nazioaren biotza, emen ze goen Tenplua, au da, eliza; errietako sinagogak, ongi mintzatzera, ezpaitziren elizak. Jerusalengo eliza bakar ortan egiten ziran, eta eskeintzen zitzaizkion Jainkoari sakrifizioak: txekor, ardi ta abar. Israeldar guztiak urtero joaten ziran erromerian Jerusalemenera.

Beste errietan, elizarik ez, baiña ba ziran sinagogak. Sinagogak zera ziran: etxe batzuk otoitzerako propio jarriak; otoitzerako, eta erlijio gauzak ikasteko. Sinagoga oietan larunbat guztiez biltzen ziran juduak. An denek elkarrekin salmuak kantatzen zituzten. Testamentu Zaharreko liburuen irakurtzak entzun, eta oien gaiñean argitasun edo azalpenak jasotzen zituzten eskriben aotik.

Eskribak, berriz, zer ziran? Biblia eta Moiseren legeko gaietan jakintsu edo zerbait ikasiak ziren gizonak. Ez ziran apaizak. Apaizak Jerusalengo tenploko zeregiñetan aritzen ziran. Eskribak, berriz, laikuak ziran: erriko seme arruntak, beren lan edo ofiziotik ogibidea billatzen zutenak, baiña erlijioari eta Moiseren legeari oso atxikiak, eta atxikimendu orrengatik hura estudiatzeko astia artzen zuten. Era ortara erriak eskola zerbait jasotzen zuen asteoro erlijioari eta Moiseren legeari buruz.

Ogibide, laboreak eta abar

Israeldarrik geienak nekazari ziran. Garia eta garagarra, urtea ona izan ezkeru, ugari samar egiten zan. Baita piko, mahats eta beste zenbait fruta ere. Basoak eta oianak ere ba ziran orduan; geroago, berriz, oiek denak kendu eta galdu egin ziran. Artzaintza ere ezaguna zan; baiña Jesusen garaian ez zan bizibide au beiñola bezin estimatua eta billatua. Arrantzaleak ere ba ziran Galileako itxasbazterrean, eta ain zuzen, oietatik artu zituen Jesusek bere Apostolu batzuk. Arotzak ere ba ziran, noski; Jesus berbera arotz (zurgin) izandu zan Nazareten.

Zenbat bizilagun zeukan Palestinak Jesusen garaian ez da samur jakitea. Bi milloi edo or nunbait izango zuen, itxuren arabera. Ponpeyok (63gn. urtean, Jesukristo jaio aurretik) lurra erromatarren menpean jarri zuenetik eta urrengo eun urteetan (Jesukristo jaio ezkeru 66gn. urtera arte) pakean

⁵ Ikus Danielou, *Los escritos del Mar Muerto y los orígenes del Cristianismo*, Madrid, 1961.- J.R. Scheifler, *Así nacieron los Evangelios*. Cap. IV. "Los Manuscritos de Qumran y los Evangelios". Bilbao, 1964, p. 225

en paz. En este intervalo ocurrieron el nacimiento y la vida de Jesús, y los grandes acontecimientos que dieron comienzo a la religión cristiana.

Judea, Samaría y Galilea

Tres provincias o regiones tenía entonces Palestina (nos referimos a la Palestina que se encuentra a la derecha del río Jordán): Judea, Samaría y Galilea.

Judea, al sur. Esta era la parte más adicta a la religión judía. Samaría, en cambio, como si fuera una región contaminada, no era vista con buenos ojos. De hecho, los samaritanos se habían mezclado con gente extranjera; vivían a su aire, pero sin abandonar del todo la religión y creencias de la religión judía. Aun en la misma Galilea las grandes poblaciones estaban helenizadas; pero la gente labradora era muy adicta a la religión judía y, además, muy patriota.

Galilea (esta es la provincia del norte), era la provincia más rica, y la mejor situada para tener relaciones con los otros pueblos. La gran calzada que iba de Egipto a Mesopotamia pasaba por el corazón de Galilea. En cambio, Judea quedaba un tanto aislada. Y gracias a ese aislamiento conservaba mejor las peculiaridades judías.

Los magnates vivían en Jerusalén. Y también los adinerados, los sumos sacerdotes, etc. Los sabios judíos, los «rabbis» o maestros más célebres también vivían allí. Pero los galileos, tal vez porque eran de sangre caliente, en cuanto a nacionalismo y en cuanto a armar revueltas, eran más lanzados que los judíos. Los grandes de Jerusalén y los cargohabientes no eran nada propensos a revueltas. Preferían hacer un buen arreglo con las autoridades, ya fuera con Herodes o con los romanos.

El idioma

En Judea se hablaría el arameo, por supuesto. En Galilea es posible que el griego fuera tan corriente como el arameo. Algunos piensan que Jesús y los Apóstoles hablaban estos dos idiomas. De todas formas, para hablar entre ellos, los judíos empleaban el arameo.

En cambio, el hebreo, la lengua en que están escritos la mayoría de los libros del Antiguo Testamento, era ya lengua muerta en tiempo de Jesucristo. En la vida corriente de cada día no se empleaba. El año 332 (antes del nacimiento de Jesucristo), cuando Alejandro sometió la Palestina, el hebreo, según parece, ya casi no se hablaba⁵.

⁵ Cf. *Les langues du Monde*, paris, 1952; p. 114. El arameo ocupó el lugar del hebreo. A decir verdad, el arameo y el hebreo son parientes próximos entre sí. Desde luego ambas lenguas son semitas.

iraun zuen erriak. Bitarte ortan gertatu ziran Jesusen sorrera eta bizitza, eta kristau erlijioari asiera eman zioten gertaera aundiak.

Judea, Samaria eta Galilea

Iru probintzi edo eskualde zeuzkan orduan Palestinak (Jordan ibaiaren eskuma-aldeko Palestina esan nai dugu): Judea, Samaria eta Galilea. Judea, egoaldean. Berau zan judu erlijioari atxikiena. Samaria, berriz, alderdi kutsatua balitz bezala, gaizki ikusia izaten zan. Izan ere, samariarrak atzerriko jendearekin nahastuak zeuden; beren bidetik zebiltzan, ba, baiña judu erlijio eta siñiskerak erabat baztertu gabe. Galilean bertan ere iri aundiak helenizaturik zeuden; baiña nekazari jendea oso zan judutar erlijioari atxikia, eta oso abertzalea, gaiñera.

Galilea (au da iparraldeko probintzia), alderdirik aberatsena zan, eta beste erriekin ar emanak izateko obeki kokatua zegoena. Ejiptotik Mesopotamiara zijoan kamio aundia Galileako biotzetik pasatzen baitzan. Judea, berriz, zoko egiten zan, eta bere bakartade orrekin judutarren berezitasunak obeki zaitzen zituen.

Aundikiak Jerusalemene bizi ziran. Baita dirudunak, apaiz nagusiak eta abar. Judutarren jakintsuak, “*rabbi*” edo irakaslerik famatuena ere an ziran. Baiña galilearrak odol-bero zirelako edo, abertzaletasunean eta matxinadak asmatzen judutarrak baiña ausartago ziran. Jerusalemengo aundiki eta kargudunak ez ziran bat ere matxinada-zaleak. Naiago zuten agintarriekin konponketa on bat egin, naiz Herodes naiz erromatarrak izan agintari.

Izkuntza

Judean arameoa itzegingo zan, noski. Galilean baliteke griegoa arameoa bezin arrunta izatea. Batzuek uste dute Jesus eta Apostoluak bi izkuntza oien jabe izan zirela. Nolanai ere, beren arteko mintzabide bezala, judutarrak arameoa erabiltzen zuten.

Hebreotar izkuntza, berriz, Testamentu Zaharreko liburuak geienak idatzirik dauden izkuntza, illa zan Jesukristoren garaian. Eguneroko bizitza arruntean ez zan erabilia. 332 urtean (Jesukristo jaio baiña lehen), Alejandrok Palestina menderatu zuenean, hebreotarra, dirudianez, ez zan kasik mintzatzen⁶. Arameoa sartu zen hebreotarraren ordean. Egia esan, arameoa eta hebreoa senide dira elkarren artean. Beintzat, semitarrak biak.

⁶ *Les Langues du Monde*, Paris 1952; 114 or.

Pero como los libros de la Biblia están en hebreo, los maestros de Israel (los «rabbis» y «sopherim») siempre solían aprender y cultivar esta lengua. Precisamente, en la época misma en que el hebreo desapareció de los labios de la gente, los judíos cultos escriben en hebreo, e incluso lo hacen al modo purista⁶.

De todos modos, en tiempo de Jesucristo el arameo era la lengua común de Palestina, y también el griego debía de estar más o menos introducido.

El arameo estuvo muy extendido en esta parte de Asia, pero, a la postre, el griego le superó en la costa del Mediterráneo (al menos como lengua escrita). Más tarde, el árabe se adueñará de estas costas. O sea, una lengua que también es semítica⁷.

La situación social

Bajo el punto de vista social podemos decir que la situación y modo de vivir de la gente humilde era mala. En un extremo tenemos a los muy ricos, en el otro a los que se hallaban en la máxima indigencia, y en medio no había nadie. La propiedad de la tierra estaba en manos de unos pocos. Los escribas recomendaban mucho la limosna, y se daría, sin duda; pero con eso no se remediaba este mal. Los carpinteros vivían un poco mejor que los labradores. Los labradores, en cambio, bastante apurados, pues las tierras no eran de ellos. Tenían que tomarlas en alquiler y con la cosecha que producían, debían mantenerse, pagar la renta al amo, pagar los diezmos, los tributos puestos por los romanos etc., o sea, todo había que sacar de ahí. Lo que a él le quedaba solía ser poca cosa. En peor situación todavía que los labradores se encontraban los trabajadores inquilinos. Estos no tenían ni tierras ni dónde trabajar. Estaban con denados a ir a la plaza y estar allí a la espera. Y, claro, siempre había mucha gente sin trabajo. Como abundaban los obreros, el sueldo forzosamente resultaba bajo, o sea, barato. La extrema miseria y necesidad era espantosa; no sólo en Palestina; en las otras regiones del Imperio Romano ocurría casi lo mismo. Ya sea por causa de la sequía, o de la guerra o por alguna invasión de escarabajos, para muchos no quedaba otra salida que la esclavitud o tener que pasarlas canutas.

Hay que decir también que entre los judíos el vivir del propio trabajo no estaba mal visto. Los rabinos recomendaban mucho el trabajo manual.

Los enfermos, paralíticos, incapacitados, ancianos y huérfanos, al menos si no tenían familiares, se encontraban ante un negro porvenir, abandonados a su suerte. Se veían mendigos por todas partes. Y también no pocos ladrones, que huían al desierto y salían de allí para robar.

⁶ Les langues du Monde, p. 114

⁷ Les langues du Monde, p. 120.

Baiña Bibliako liburuak hebreoz dauden ezkerro, Israelgo maisuek (“*rabbī*” eta “*sopherim*”) beti ikasi eta landu oi zuten izkuntza au. Ain zuzen ere, hebreoa jendearen ezpaiñetatik suntsitu zen aro ortan bertan, judu eskolatuek hebreoz idazten dute, eta garbizale edo puristen erara idatzi ere⁷.

Dena dela, Jesukristoren denboran arameoa zan Palestinako izkera arrunta. Eta baita griegoak ere gutxi asko sarturik egon bear zuen.

Arameoa oso zabaldurik egon zan Asiako parte ontan, baina azkenean griegoa nausitu zitzaion Mediterraneoko itxasertzean (izkuntza idatzia bezala beintzat). Geroago, berriz, arabitarra jabetuko zan bazter oiezaz. Semitar izkuntza au ere⁸.

Sozial egoera

Sozial kontuan, berriz, jende xearen egoera eta bizibidea oso txarra zela esan genezake. Mutur batean aberats aberatsak, bestean pobretasun gorriean zeudenak, eta bien bitartean iñor ez. Lurraren jabetasuna, gutxi batzuen eskuetan aurkitzen zan. Limosna egitea asko gomendatzen zuten eskribek, eta egingo zan, noski, baiña orrekin ez zan gaitz au erremediatzen. Arotzak, nekazariak baiño obetoxeago bizi ziran. Nekazari edo laboraria, berriz, naiko larri eta estu. Lurrak ezpaitzitzen bereak. Lurrak alogeran artu bear, eta ortik jasotzen zuen laborearekin, bai bere mantenurako, bai jabeari errenta pagatzeko, amarrenak, erromatarren zergak eta abar ordaintzeko, dena ortik atera bear. Berari gelditzen zitzaiona, utsaren pare izaten zan. Nekazariak baiño beherago oraindik aurkitzen ziran langille *maizterrak*. Oiek ez zeukaten ez lurrik eta ez nun lanik egin. Plazara joan eta antxe begira egon, hori zan oien patu tristea. Eta jakiña, beti gelditzen zan makiña bat jende lanik gabe. Langilleak oso ugari zirelako, lan-saria oso bajua ta merkea izan bear. Bear-gorria ta miseria, ikaragarria zan oso; bai Palestinan eta bai Erromatar Inperioko beste bazterretan ere xamar gertatzen ziran gauzaok. Legorte bat dela, gerra bat, xomorro-laiño bat, eta askorentzat ez zan beste irteerarik: edo esklabotasunean erori edo gorriak ikusi bear.

Hori bai, juduen artean norbere lanetik bizitzea ez zegoen gaizki ikusia. Rabinoek esku-lana asko abonatzen baitzuten.

Gaixoak, elbarriak, ezinduak, agure eta umezurtzak, familiarik ez baldin bazuten beintzat, etorkizun beltz baten begira aurkitzen ziran, bereka-

⁷ *Les Langues du Monde*, 114 or.

⁸ *Les Langues du Monde*, 120 or.

Las deudas: he ahí otra plaga de aquella sociedad mediocre y deficiente. Con frecuencia ocurría que un labrador se hallaba precisado a contraer una deuda. El prestamista la facilitaba el dinero; pero el interés solía ser muy elevado: el 50 por ciento, etc. Y al deudor no le quedaba otro camino que caer en la esclavitud, o vivir siempre en extrema necesidad.

Los casamientos eran prematuros. Y ello solía ser consecuencia de aquella pobreza extrema. Al llegar a los 12 años, tanto los chicos como las chicas, estorbaban en casa, y tenían que salir a alguna parte. Si no había ocupación cerca de los padres, pasaban a engrosar la masa de los desocupados. Solían casarse demasiado pronto, y envejecían también pronto. Y los críos que traían al mundo, por culpa de los casamientos prematuros, con frecuencia resultaban paralíticos, débiles o enfermos.

La comida del pobre era muy ordinaria y escasa. Pan de trigo o de cebada, y un poco de pescado. También existía el vino. Y hortalizas: puerros, habas, etc. Incluso algunas frutas. De carne, muy poco. Los alimentos traídos de fuera solían ser exclusivamente para los ricos. Vestidos, los que llevaban puestos: una túnica, y el manto. Y envueltos en el manto dormían por la noche. Las casas solían ser de piedra.

Tiene su importancia el saber estas cosas. Efectivamente, en toda la antigüedad, fuera del cristianismo, no se ve ningún otro movimiento que surgiera del pueblo bajo. Jesús y sus discípulos salieron de esa clase social pobre y a esa clase pobre dirigieron la palabra, antes que a ninguno. Y cuando la religión cristiana se propagó en las grandes ciudades del Imperio Romano, la buena nueva se anunciaba a los pobres, y de éstos llegó a las capas altas: o sea, de abajo arriba⁸.

La situación religiosa

Aun con todas sus lacras y aspectos negativos, aquella clase de gente era digna de admiración para nosotros. Los hombres de nuestra época creemos, sí, en el mundo que se ve con los ojos de carne; pero los problemas empiezan cuando hay que creer en el mundo que no se ve con esos ojos. Entonces, en cambio, las cosas resultaban al revés. Esta borrachera de la materia, la preocupación por lo que se refiere a la vida del cuerpo etc., son achaque y asunto de hoy, sin duda. El Credo nos manda que creamos en el Hacedor de las cosas que se ven y de las que no se ven. Los hombres de la Antigüedad tenían una fe firme en las cosas que no se ven; no tanto en las que se ven. En nuestra época hemos pasado al otro extremo⁹.

⁸ Véase J.L. McKenzie. El mundo judío en tiempos del nuevo testamento, en el libro *Verbum Dei*, T. III, n° 584ss.

⁹ Véase Pierre Charles, Créateur des choses visibles: en el libro *L'Eglise sacrement du monde*, p. 57.

sa ta bertanbera utziak. Eskaleak nunai ikusten ziran. Lapurrak, basamortura iges egiñak eta andik lapurretak egitera irtetzen zirenak ere, ez gutxi.

Zorrak: orra beste izurrite bat orduko gizarte kaxkal eta eskas artan. Askotan gertzen zan nekazaria zor bat egin bearrean. Artzekodunak dirua luzatuko zion bai; baiña korritua ikaragarri altua izaten zan: euneko berrogeita amar, ta ola. Eta zordunak, esklabotasunean erori, edo beti itoa bizitzea beste biderik ez zeukan.

Ezkontzak goizegi egiten ziran. Eta hori ere probetasun ikaragarri aren ondorioa izaten zan. Bein amabi urtera ezker, bai mutillak eta bai neskak, etxean traba egiten zuten, eta norabait irten bear. Gurasoen ondoan lanik ezpazan, lanik gabekoen sailla ugaritzera joaten ziran. Goizegi ezkondu eta goizegi zahartu. Eta mundura egozten zituzten aurrak ere, goiz ezkontze orren erruz, elbarri, makal edo eriak izaten ziran askotan.

Probearen jana, arrunta zan oso eta eskaxa. Gari eta garagarrikin egin-dako ogia, eta arrain puxka. Ardoa ere ba zan. Eta barazkiak: porru, baba eta olako. Baita fruta batzuk ere. Aragia oso gutxi. Kanpotik ekarritako jan-gauzak, aberatsentzat bakarrik izaten ziran. Soñekoak, aldean zeramazkitenak: tunika bat, eta mantua. Mantu ontan bildurik egiten zuten gaueko loa. Etxeak arrizkoak ziran.

Gauza auen berri jakiteak, ba du bere ajola. Izan ere, antziñate guztian, kristautasunaz landara, ez da agiri beste mobimendurik erri xearen artetik ilkia. Jesus eta onen ikasleak giza-mailla probe ortatik irtenak dira eta klase probe orri zuzendu zioten itza, beste iñori baino lehen. Eta kristau erlijioa erromatar Inperioko iri aundietan zabaldu zenean, probeei iragartzen ziztzaien berri ona, eta oietatik eldu zan goimailletara: behetik gora, alegia⁹.

Erljio-egoera

Akats eta alderdi beltz guztiekin ere, arrigarriak dira guretzat giza-mueta aiek. Gure aroko gizonok siñisten dugu, bai, aragizko begiekin ikusten den munduan; begi oiekin ikusten ez den munduan siñesteko izaten dira lanak. Orduan, berriz, gauzak beste aldera gertatzen ziran. Materiaren mozkor au, gorputzeko bizitzari dagozkion gauzen ardura eta abar, oraingo ajea ta kezka dira, dudarik gabe. Ikusten diren eta ikusten ez diren gauzen Egilleagan siñesteko agintzen digu Kredoak. Antigualeko gizaseme aiek ba zuten, bai, siñeste gogorra ikusten ez diren gauzetan; ikusten direnetan ez ainbeste. Gure aroan beste muturrera jo dugu¹⁰.

⁹ Ikus J. L. Mc Kenzie, "El mundo judío en tiempos del Nuevo Testamento", *Verbum Dei* liburuan, t.III, n° 584ss.

¹⁰ Ikus Pierre Charles, "Créateur des choses visibles": "*L'Eglise sacrement du monde*" deritzaion liburuan, 57 or.

Todos los israelitas, en tiempos de Cristo, llevaban arraigada en el corazón una gran esperanza: la esperanza de un Mesías. Este Mesías debía establecer en el mundo el reinado de Dios. En cuanto a lo demás, acerca del Mesías y su reino, los mismos judíos apenas tenían ideas muy precisas.

Pensaban que sería un rey célebre, guerrero famoso, que destruiría las naciones de los gentiles, etc. Al mencionar «los días del Mesías», los ojos de un judío brillaban con un fuego característico. En aquel reino todo iba a ser oro, plata, todo bienandanza; ya no se iba a conocer en el mundo hambre, ni sequía, ni carestía. Entonces se alejarían para siempre la escasez y la miseria; en ninguna parte reinaría ya más que la justicia y la paz. Las piedras preciosas y las joyas se encontrarían en abundancia en las calles de Jerusalén y en todos los alrededores.

Como es manifiesto, aquella gran esperanza venía mezclada en la práctica con muchos sueños y apetencias ruines. Venía asociada a planes de tipo político. Se suele decir que el cerdo hambriento sueña en la bellota: el pueblo bajo y pobre pensaba que al aparecer ese Mesías se remediarían todas sus penurias. El tener que trabajar, la falta de pan, el modo de vivir fatigoso: todo, como por ensalmo, se arreglaría con el Mesías¹⁰.

El pueblo de Israel, a lo largo de su historia, casi siempre tuvo profetas, o sea, enviados de Dios, es decir, quienes le venían a hablar en nombre de Dios. En cambio, en el tiempo de Jesús, hasta que apareció Juan Bautista, no había ningún profeta en Israel: ni en tiempo de Jesús ni en la generación anterior. El impulso de los profetas solía ser necesario para despertar del sopor al pueblo y para guardar la misma religión en su plano espiritual, en su verdadero ser. De lo contrario, el Templo, las funciones religiosas, los sacrificios, la ley, todo acababa convirtiéndose en un cuerpo sin alma.

Alguien ha dicho que los profetas han sido los primeros cristianos, y está bien dicho: hay un gran parecido entre la predicación de ellos y la de Jesús. También esto otro han dicho algunos investigadores: que los profetas eran enemigos del Templo y de los sacerdotes. Pero esto no es verdad. Porque el pueblo confiaba excesivamente en los sacrificios y ceremonias del Templo, los profetas denunciaban esa falsa confianza. Los sacerdotes, el templo, las ceremonias etc., todo era necesario, pero todo ello exige un alma, y la necesidad de eso es lo que predicaban los profetas.

Por faltar los profetas, pues, en la época anterior a Jesús, la religión judía aparecía como un poco carente de alma. Las ceremonias de la Ley se cumplían con exactitud, los sacerdotes y levitas cumplían bien sus ceremonias, los escribas en las sinagogas pedían que se guardaran la ley y las costumbres, pero se notaba una carencia de interioridad. Hacía mucho tiempo que no resonaba la voz de aquellos recios predicadores. Muchos israelitas pensaban que con guardar fielmente la Ley, o sea, las ceremonias y

¹⁰ Véase William, *La Vida de Jesús en el país y pueblo de Israel*; p. 204: «Jesús y las esperanzas mesiánicas terrenas y nacionalistas de su tiempo».

Israeldar guztiak, Kristoren garaian, biotzean zeramaten kokatua itxaropen aundi bat: Mesias baten itxaropena. Mesias onek Jainkoaren erresuma ezarri bear zuen munduan. Gaiñerakoan, Mesias eta aren erresumari buruz apenas zeukaten judutar eurak ideia garbi zeatzik. Errege ospetsu bat izango zela pentsatzen zuten. Gerrari bortitza, jentillen nazioak txikituko zituen, ta abar. “*Mesiaren egunak*” aipatzean, judutar baten begiak su berarizko batekin ñir-ñir jartzen ziran. Aren erresuman dena izango zan erre, zillar, dena zorion; geiago ez zan munduan izango ez goserik, ez legorterik edo ezurterik. Orduan betiko aienatuko ziran gabestia eta miseria; bazterretan ez zan izango zuzentasuna eta pakea besterik. Arri preziatuak eta pitxiak erruz aurkituko ziran Jerusalemgo kaleetan eta ingurumari guztian...

Agi denez, Mesiaren esperantza andi hura, amets eta gutizia ziztrin askorekin nahasia zebillen. Politika-usaieko asmoei lotua zetorren. “Urde goseak ezkurra amets”, esan oi da: erri xeak eta probeak uste zuen, Mesias hori agertzearekin, bere estuasun guztiak erremedituko zirela. Lan egin bearra, ogi eskasia, bizimodu nekosoa: dena mirakuiluz bezala “in nomine santian” konponduko zan Mesias orrekin¹¹.

Israelgo erriak, bere kondairan zear, ia beti izan zituen profetak, ots, Jainkoaren mandatariak, edo Jainkoaren izenean itz egitera zetozkietenak. Jesusen garaian, ordea, eta Joan Bataiatzaillea agertu zen arte, ez zan profetarik nabari Israelen: ez Jesusen garaian eta ez aurreko gizaldietan ere. Profeten eragiña bearrezkoa izaten zen erria lozorrotik esnatzeko eta erlijioa bera, espiritualki, bere egiazko muiñean gordetzeko. Bestela, Tenploa, elizkizunak, sakrifizioak, legea, guzti hori arima gabeko gorputz bat biurtu oi zan.

Baten batek esan izan du profetak izan direla lehenbiziko kristauak, eta ongi esana: anaitasun aundia nabari baita aien prediku eta Jesusen predikuen artean. Onako au ere esan dute aztertzaile batzuek: profetak, Tenploaren eta apaizen etsaiak zirela. Hori, ordea, ez da egia. Erriak elizkizun eta sakrifizioetan eta zeremonia xoilletan geiegizko konfiantza itsua jartzen zuelako, profetek gezurrezko konfiantza hori nai zuten astindu. Apaizak, Tenploa, zeremoniak ta abar, dena zan bearrezko, baiña guzti orrek arima bat eskatzen du, eta orren bearra predikatzen dute profetek.

Profeta oien faltaz, bada, Jesus etorri aurreko garaian, judu erlijioa pixka bat arima gabetua gertatzen zan. Legearen zeremoniak zeatz betetzen ziran, apaizek eta lebitok beren eginkizunak tajuz egingo zituzten, eskribek sinagogetan lege eta oitura oien gordetzea gomendatzen zuten, baiña barneratasun falta nabaitzen zan. Predikari bortitz aien oiua ez zan aspaldidantik aditzen. Israelgo seme askok uste zuten Legea, au da, zeremoniak eta

¹¹ Ikus Willam, *La vida de Jesús en el país y pueblo de Israel*, 204 orrialdean: Jesús y las esperanzas mesiánicas de su tiempo.

los ritos externos ya bastaba. Y de ese modo la religión se convirtió en mero formalismo exterior.

Para ellos no existía otra santidad que la que proviene de cumplir esas ceremonias exteriores. La sinceridad de corazón, el auténtico amor de Dios y del prójimo y las demás virtudes eran minusvaloradas. Cuando apareció Jesús, un legalismo seco y duro era lo que prevalecía ¹¹.

Pero si queremos dar con la raíz de este mal, es preciso ir más lejos. En efecto, en la religión de Israel sucedió un cambio grande al volver del cautiverio de Babilonia.

En la religión antigua tenía un lugar especial y propio el profeta: es decir, el hombre que es el enviado de Dios. Eso es, precisamente, lo que quiere decir la palabra «profeta». El pueblo de Israel solía tener profetas, y de la boca de ellos aprendía la voluntad de Dios. El profetismo era el alma de esta religión.

Pero después, cuando los israelitas volvieron del destierro de Babilonia, la religión asumió otra imagen o aspecto. Entonces fue cuando se reunieron los libros de la Biblia y toda la religión empezó a girar en torno a esta colección (sobre todo en torno a la ley de Moisés). Los peritos en esta ley (los «sopherim»), tomarán ahora la dirección de la religión. Entonces es cuando nació el Judaísmo. Y el Judaísmo ahogó el profetismo. No hacían falta profetas, puesto que en la Ley está todo escrito; y para aclarar y desmenuzar la Ley, ahí están los «sopherim», o sea, los escribas.

El pueblo no se contentaba con semejante religión. Siempre conservó el deseo de ver y oír a aquellos profetas antiguos. Pero en el Judaísmo no queda ya lugar para ellos. En lugar de la palabra viva, la letra escrita. En lugar de los profetas, los libros, y los profesores que explican esos libros. De ese modo, la religión se volvió estéril, el galismo y el seco juridicismo se introdujo en el lugar del mismo Dios. Esta era la situación religiosa de los días de Jesús.

El pueblo llano —como hemos dicho— sí que mantuvo un gran deseo de los profetas y de su retorno. La literatura apocalíptica procede también del vivo anhelo de tal retorno. Pero los guías del pueblo pondrían mala cara a cualquiera que viniera como enviado de Dios. En el sistema ideado por ellos no quedaba lugar para tales enviados. Con esto no queremos decir que los guías del pueblo no esperasen la venida del Mesías. Pero según estos señores, el quehacer de ese Mesías sería muy reducido: fortalecer el reino judaico, o algo por el estilo. Por lo demás, la ley de Moisés era intocable, estaba fundada de una vez para siempre. Dicha ley nadie la podía cambiar.

De todos modos, mal ambiente para el que viene en nombre del señor. ¹²

¹¹ Véase Yves M. Congar, *El Misterio del Templo*, Barcelona, 1963; p.71.

¹² Véase J. Giblet «Prophetisme et Attente d'un Messie-prophète dans le Judaisme», en el libro intitulado «L'Attente du Messie», Desclée, 1954.

kanpoko usadioak tajuz gordetzearekin dena zegoela egiña. Eta orrela erlijioa itxurakeria bat izatera eldu zan, formalismo utsa. Ez zan aientzat beste santutasunik, kanpoko zeremonia oiek ongi gordetzetik eldu zena baikik. Biotzeko zintzotasuna, Jainkoaren eta lagun urkoaren benetzako amodioa eta beste birtuteak gutxietsiak ziran. Jesus azaldu zenean, legalismu idor eta gogor hori ageri zen nagusi¹².

Baiña guzti onen erroa billatu nai izan ezkeru, urrunago joan bearra dago. Izan ere, Israelgo erlijioan aldatu gogorra gertatu zan Babiloniako gatibutasunetik biurtzerakoan.

Erlijio zaharrean toki berezi eta aparteko bat zuen profetak: ots, Jainkoaren mandataria den gizonak. Hori da, ain zuzen, profeta itzak esan nai duena. Israelgo erriak profetak izaten zituen, eta oien aotik ikasten zuen Jainkoaren borondatea. Profetismoa zan erlijio onen arima.

Baiña geroago, israeldarrak Babiloniako erbesteratzetik itzuli zirenean, beste itxura edo planta bat artu zuen erlijioak. Bibliako liburuak orduantxe bildu ziran, eta bilduma orren inguruan (batez ere Moiseren Lege inguruan) jarri zan erlijio osoa. Lege orretan adituak zirenak (“*sopherim*”), artuko dute erlijioaren buruzagitza. Orduan sortu zan Judaismuia. Eta Judaismuak profetismoa ito egin zuen. Ez dago profeta bearrik, Legean dena idatzirik dagoen ezkeru; eta Legea argitzeko eta xeatzeko, or daude “*sopherim*” edo *eskriba* direlakoak.

Jakiña, erria ez zan orrelako erlijioaz asetzen. Beti gorde zuen antziñako profeta aien ikusmiña eta entzunmiña. Baiña Judaismuan ez dago oientzat tokirik. Itz biziaren orde, letra idatzia. Profeten orde, liburuak, eta liburu oien adierazle diren irakasleak. Era ortara, erlijioa elkortu egin zan, legalismu eta juridismu idor bat sartu zan Jainkoaren beraren lekuan. Hori zan Jesusen egunetako erlijio-egoera.

Erri weak, esan dugunez, gorde zuen, bai, profeten gogo bizia, eta oien itzulmiña. Apokaliptiko literatura ere itzulmin ortatik sortua da. Baiña erri-gidariek musu illuna jarriko zioten Jainkoaren mandataria bezala zetorren edozeiñi. Aiek egindako sistemian ez zen oientzat tokirik. Onekin ez dugu esan nai erri-gidari oiek Mesiaren etorrera ez zutela itxoiten. Baiña Mesias orren egikizuna oso mugatua izango zan, jaun oien ustez: judu erresuma indartu, sendotu edo orrelako zerbait. Gaiñerakoan, Moiseren legea ezin ikutuzkoa zan eta bein betiko ezarria eta finkatua zegoen. Lege hura ezin alda zezaken iñork.

Nolanai, ere, giro txarra Jainkoaren izenean datorrenarentzat¹³.

¹² Ikus Yves M. Congar, “*El misterio del Templo*”, Barcelona 1963, 71. or.

¹³ Ikus J. Giblet, “*Prophétisme et Attente d’Messie-prophète dans le Judaïsme*”, “*L’Attente du Messie*” liburuan, Desclée, 1954. 85 orr.

